Artzape

getariarron topagunea

2019ko uztaila

194. zbk

EUSKARA ABENTURA BIHURTUTA

ITSASOARI BEGIRA 500 URTE GEROAGO

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

8-9 Argazki erreportajea: ekaineko ekitaldiak

16-17 Erreportajea: getariarrak Euskarabenturan

4-5	Salberak Itsaskabrari
6	Iritzia: Joxi Erauskin
7	Komikia
8-9	Argazki erreportajea: ekaineko ekitaldiak
10-13	Elkarrizketa: Ion Irurzun
14	Erreportajea: mundu biraren V. mendeurrena
16-17	Erreportajea: Euskarabentura
18	Elan Euskadi
19	Historiaren katebegiak
20	Eskubide Sozialen Karta
21	urpekHARIAK
22	Harritarten txutxupeka
23	Urritza Aisialdi Taldea
24	Zer jan, hura izan
25	Getariako hitza eta Txikiegia agian
26	Agenda

2019ko uztaila 194. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Joseba Fuentes.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

JON ANDER DE LA HOZ

Summer vibes in Lekitto

Zarauzko triatloia egin ez(in) izanaren aje emozionala gainditzeko, Lekeitioko triatloia egitera gerturatu ninduan ekainaren 15ean. Ez dek gauza bera, noski, eta nekez baretu ahalko nian harra, baina, Zigor, beste kupeleko sagardoa dek hori eta ez gaituk horri buruz hausnartzen hasiko orain.

Harira. Iritsi gintuan, bada, garai bateko arrantza portu hartara, eta hara non eliza alboko taberna bateko sarreran nolako garnatarekin harrapatu nahi zizkiatean XXI. mendeko arrainak: "*Summer vibes in Lekitto*" idatzita. Esan gabe ziak plaza inguruan geundenon %90, gutxienez, euskal herritarra zela, eta ehuneko oso handi bat euskalduna.

Gutxika-gutxika herdoiltzen ari den gizarte honen isla iruditzen zaidak esaldi hura. Edukiz husten ari gaituk Euskal Herria. Beharrezkoa dek turismoa, noski, orotariko eskolak eta enpresa handiak behar diren moduan, gurea herri normalizatuen mapan ikusi nahi badiagu bederen. Baina beharrezkoa al da beste herrien kopia izatera mugatzeko joera horretan tematzea?

Basque Culinary Center eta Basque Industry 4.0 ponpoxoetatik hasi eta konplexuaren adierazle diren Bermeo Tuna World Capital —*intxantea*, negargarria ez balitz— edo Goierri Valleytara estrategia falta izugarria sumatzen diat. Begira Zarautzen hizkuntza-paisaiarekin gertatzen ari denari: lehen hotelak Zerupe eta Ipar hituan, orain Dreams eta Mörf. Esanguratsua oso.

Dekolorazio prozesu bete-betean gaudek. Zerbait saltzeko baldin badiagu, erakargarri egiten gaituena, hizkuntza, ohiturak eta izaera ditiagu. Zer zentzu dik Bilbo New York txiki bat bilakatu nahi izateak? Jendeak hori bilatzen dik, edo tokian tokiko berezitasunak?

Baina, are larriagoa iruditzen zaidana: joera horrek, ustez moderno egin beharrean ez al gaitu euskaldunak urardotuko?

ZIGOR SAIZAR

Atuna tuneatuta: tolla

"Ez dut osorik hartu baten parabola,
erdaraz mintza baitzen, berak jakin nola:
gure herri maiteaz zuela axola,
hau, bere gain baharra, bertzen men dagola,
'Gora Euskal Herria', INGELESEZ ziola".

Mikel Laboak abestutako Xalbadorren *Herria eta hizkuntza* bertsoaren ahapaldiaren amaiera tuneatu diat, Jonan, horixe baitek hik planteatzen duan parabola: erdaraz mintza gaitezen, gure herri maiteaz dugula axola... gora Basque Country!

Donostiako Parte Zaharrean donostiarrik apenas zebilek, alboko auzoetara erbesteratu dituk, Gros,

Antiguo... Hik dioken bezala, New York gurera ekarri nahian, Bilbok bere Empire State egin dik Iberdrola dorrearekin, zenbat bilbotar igoko dituk han gora? Zenbat euskal herritar joan dituk noizbait Guggenheim bisitatzera?... Gaztelugatxe bisitatzeko *Game of Thrones*eko norbaiten antzera joan behar dek mozorrotuta... eta eguneroko bisitarien kopurua mugatu ditek... Hango haitzetan lanpernetan norbait ibiliko al dek?

Eta gure herrian, aixkide, Getaria Cityn ze martxa? *Think global, eat local* —Aitor, kartel hori aldatu beharra zeok: pentsatu herrian, gozatu bertako zaporeez—. Gure herriko jatetxeetako zerbitzariek nahitaez Shakespeareren hizkuntza jakin beharra ditek; garai batean Mayflower itsasontzia erabili ziaten kolonoak Ameriketara eramateko, orain kolono amerikarrak Mayflowerrera etortzen dituk barbañak jatera, Faustinok alban harrapatutako barbañak. Eta jakin nahiko nikek zenbat getaiar joan diren Balenciaga Museora herriko jostunaren berri emateko prestatuta diaten ibilbideaz gozatzera... Ikasleekin bisitatzeko aukera izan nian udaberri hasieran eta bertako gidariak jostunaz Christian Diorrek esandakoarekin geratu ninduan: "Guk, oihalekin ahal duguna egiten dugu. Balenciagak, aldiz, berak nahi duena egiten du". Marka dek gero, moda kontuan Messi dena gure herritarra izan, mundu guztian goraipatua eta ospetsua, baina guk ezagutzen al diagu?

Jendeak zer bilatzen duen turismoa egiterakoan galdetzen dek, tokian tokiko berezitasunak edo toki guztietan eroso sentitzen diren herri eta toki *trendy*ak, Lonely Planet gida turistikoetan azaltzen direnak. Nagok txikitan futbolisten albunak betetzen genizkian bezala, orain turistok munduko toki, hiri, herri eta paisaiak gure bizitzaren albumean betetzen goazela, gure inguruko jendartean prestigioa irabazi nahian, sare sozialetan argazkiak argitaratuz.

Lonely planet, holaxe geratuko gaituk laster, bakarrik, planetarik gabe, bakardadea eta isiltasunaren edertasuna desiratuz.

ZAINTZA EGUNAK

Uztailaren 15etik 19ra, 29an eta 30ean.

FULDAIN FARMAZIA

JOXI ERAUSKIN

Informazioa gainez, jakituriak ihes

Askotan artikulu baterako gaiak ezustean agertzen dira. Zertaz idatzi ez dakizunean ikusten edo entzuten duzun edozerk piz dezake argi txinparta gai baten inguruan. Pertsona bati entzun nion beste bati esaten gaur egunean jakintsuagoak garela informazio gehiago dugulako eskura. Eta nire baitan pentsatu nuen: *gaur egun ezagutza handia dugu edozertaz, informazioa ere ibaika nonahi, baina horregatik jakintsuagoak al gara?*

Jakin badakigu jakitea ona dela, jakiteak lekurik ez duela hartzen, bizitzan edozertarako jakin egin behar dela… baina benetan uste dugu informazio asko edukitzeagatik gehiago dakigula eta horrek jakintsuago egiten gaituela? Informazioaren munduan bizi gara, noski, baina ez nuke esango horregatik jakintsuagoak garenik. Gauza bat da informatuta egotea, bestea ezagutza edukitzea eta bestea jakituria izatea, eta nahastu egiten ditugu sarritan.

Ze alde dago, ordea, hiru kontzeptu horien artean? Informazio ugari dugunez, unean unekoa dugu nonahi gaudela ere; halere, informazioa gertakizunaren datuak dira, besterik ez. Informazio hori ulertzeko, epaitzeko eta nola erabili jakiteko ahalmena, ordea, ezagutzak ematen digu. Jakituria, aldiz, azterketa eta esperientziaren bidez lortzen den ezagutza sakona da; ezagutza noiz, nola, non eta zein helbururekin modu egokian epaitzeko gaitasuna. Jakituriak gizakiari adimena ematen dio, gozatzeko ahalmena. Hain zuzen, jakituriarekin jokatzen duenak on egiteko joera du, barru-barrutik esperientziak ematen digun eta sentiarazten digun zerbait litzateke. Bestalde, ezagutzako diziplinetan, esaterako, zientzietan, legeetan edo artearen munduan, jakituria arlo horietan ezagutza zabala eta sakona duten eta horretan jakintsuak direnekin lotzen da.

Badago esaldi ospetsu bat esaten duena informazioa duenak ahalmena duela. Egia, noski; informazioa kontrolatzen duenak mundua kontrolatzen du. Esan bezala, informazio gehiegi daukagu gaur egun eskura. Prentsa, irratia, telebista nahiz sare sozialek milaka datu eskaintzen dizkigute aldioro. Eta horrekin batera zaborra ere ugari eransten digute gure garunean. Lan eskerga da gero baliagarria zaigun eta fidagarria zaigun informazio zehatza aurkitzea, liburutegi erraldoi batean interesatzen zaigun liburua aurkitzea bezala. Milaka liburu badaude, milaka informazio dago, baina zerbait interesatzen bazaigu, hura aurkitu behar dugu. Gauza bera egin beharko genuke interneten edo beste nonbait aurkitu nahiko genukeen informazioarekin.

Gaur egun sare sozialek abantaila handiak eskaintzen dizkiguten arren, nahastu egiten gaituzte ez baditugu ondo erabiltzen. Gezurra edo *fake news* delakoa barra-barra dabil sarean. Gainera, guztiz kontrolatuta gauzkate. Badakite zer pentsatzen dugu, zer atsegin dugun, zein lekutan egon garen, dena dakite gutaz… eta informazio horren guztiaren arabera egokitzen dizkigute sare sozialetara helarazten dizkiguten mezuak edo publizitatea. Hitz batean esanda: informazioz blai eginda gaude, eta hori jakinduriarekin lotzen dugu.

Honaino iritsita, azkenaldian zientziak esaten du jakituriaren oinarrian isiltasuna legokeela, isiltasuna ezinbestekoa dela gure garunarentzat. Hain justu, gainezkako informazioak eta zaratak pertsona aztoratu eta estresaren hormonak askatzen omen ditu garunean, eta ondorioz, gaixotu egiten omen gara. Isiltasunak, aldiz, pertsona lasaitu egiten du eta bere senera itzuli. Azterketek diote garunak isiltasuna ezagutu eta oso modu egokian erantzuten duela, osatu egiten duela pertsona. Aldi berean, inspiraziora bultzatzen gaitu eta gorputza eta burua elikatu. Hain zuzen ere, horixe omen da behar duguna gure garuna eta gorputz nekatuak indarberritzeko.

Agian, egunero tartetxo bat hartu beharko genuke ez telebista, ez irrati, ez mugikor, ezer gabe, bakardadean, norbera bere buruarekin egoteko. Hori da gomendatzen dutena eguneroko jarduerei indarberrituta aurre egiteko, informazioz gainezka eta presaka bizi garen gizarte honetan.

EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST

SAN JUANAK AILATZIAN HASTEN DEN UDARA GETAIAN.

BAI, DENOK HONETXEN ZAI! UDARAN HERRIAK BESTE KOLORE TA BIZITASUN BAT DIK. EGUZKI ARGIA BERANDU ARTE, GAUETAN UMIAK FRONTOIAN JOLASIAN...

...JENDIA RE BESTE UMORE BATIAN EGOTEN DEK UDAN!

BAI, BUENO, APARKATZIA LORTU EZKEO!

Edurne

ARGAZKI ERREPORTAJEA: EKAINEKO EKITALDIAK

Gure Txeruren dantza emanaldia Euskal Jai bezperan.

Azoka Euskal Jai Egunean.

Euskal Jaietako irrintzi lehiaketako irabazleak.

Zahartzaroaren Omenaldian omendutako Ignacia Sorazu.

Zahartzaroaren Omenaldian omendutako Tomas Arregi.

Arraun elkarteko taldeen aurkezpena.

Txoko, futbito txapelketako irabazle.

1936ko altxamendu frankistaren ondorioz hildakoei omenaldia Getariako hilerrian.

Jolasak eskolaren ikasturte amaierako jaian.

Ekitaldia eskolaren ikasturte amaierako jaian.

Haritz Alberdi Udaleko aginte makila jasotzen.

Musika eskolaren ikasturte amaierako ekitaldia.

Txikienak musika eskolaren ikasturte amaierako ekitaldian.

Danborrada San Juan jaietan.

San Juan sua.

Umeen jolasak San Juan jaietan.

Libe Goenaga eta Danel Olano San Juan jaietan.

ION IRURZUN

"ELKANORENGANA BAINO, GARAIKO ITSAS KULTURARA DOA BEGIRADA"

Urteko lehen hilabeteetan aurkeztu zuten Elkano Fundazioaren lantaldea, hiru kidek osatua. Helburuak eta irizpideak ezarrita, martxan dira dagoeneko. Ikuspegi akademikoa dute ardatzetako bat, erreferentzia faltan, duela 500 urteko itsas inguruko gizartearen ezagutza berria sortu nahi baitute. Horren dibulgazioa ezinbestekotzat jota, erakunde eta herritarrekin ekintzak prestatzen ari dira.

TESTUA
IURE EIZAGIRRE

Duela hilabete batzuk jarri zen Elkano Fundazioko lantaldea martxan, nola egokitu zarete?
Ni neu iazko martxoan sartu nintzen Fundazioan; erronka bat zen, orri zuri bat zegoelako. Fundazioa Elkanoren mundu biraren 500. urteurrenaren oroimenaren aitzakian sortu zen baina ez zegoen gehiago. Gauzak horrela, denbora eskatu nuen proposamen bat lantzeko, Fundazioa nahiz oroimen ekitaldiak nola eta zertarako egin pentsatzeko.

Arakatuta konturatu ginen akademia arloan ez zegoela, eta ez dagoela, Elkano eta mundu bira jorratzen duten lan erreferenterik. Horregatik, berehala ikusi genuen ezagutza berria sortzeko beharra, eta horri estu lotuta, dibulgaziorakoa. Lan akademikora bakarrik mugatuta ez da gizarteratzen, arlo akademikotik eratorritako produktuak atera behar dira.

Hori izan zen hasierako proposamena, zeinetan hiru irizpide identifikatu genituen Fundazioaren jarduerak arautu behar dituena: ezagutza berriak sortzea, honen dibulgazioa eta sare lanak egitea.

Egindako proposamena onartu zuen patronatuak —Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Urola Kostako Udal Elkarteko eta Getariako Udaleko ordezkariek osatzen dute patronatua—. Hori guztia egiteko eskatu nuen lantalde txiki bat eta aurtengo urtarrilean osatu nuen Rafa Zulaika proiektuen koordinatzailearekin eta Alaia Berriozabal administrari eta proiektuen teknikariarekin. Komunikazioa kanpotik daramate.

Elkano kalean duzue egoitza, nolakoa izan da herritarren harrera?
Udalean zein Balenciaga

Ion Irurzun.

"Herrian egon nahi genuen harreman sareak sortzea garrantzitsua delako guretzat"

Elkano Fundazioaren lantaldearen aurkezpena: Ion Irurzun, Alaia Berriozabal eta Rafa Zulaika.

Museoan jartzeko aukera izan genuen, baina batetik, ez gara udal proiektu bat eta bestetik, herrian egon nahi genuen, harreman sareak sortzea garrantzitsua delako guretzat.

Urtarrilean egin genuen aurkezpen ireki bat eta hori izan zen abiapuntua herriarekin gauzak egiteko. Segituan etorri ziren batzuk gugana lankidetza sortu nahian eta talde bat eratuta, horretan ari gara pixkanaka.

Bestalde, herritar jakin batzuk gerturatzen dira ideia ezberdinak bultzatu nahian eta beti jartzen ditugu mahai gainean gure helburuak. Fundazioak ez du denerako balio, baina gure asmoekin bat datorrena elkarrekin landu dezakegu.

Getariarrok zer dakigu Elkanoz?
Informazioa urria da, duela 500 urte izandako gertakari baten inguruan datu fidagarri gutxi dago gaur egun. Eta hipotesi asko, nolabait erabiltzen ditugunak gure bertsioak eta egia biribilak sortzeko. Fundazioaren ikuspegia ikerketa eta lan akademikoa bada, ikasketa berriak gurera ekartzeko irekita egon behar dugu.

Azken urteetan Elkanorekiko azaleratu diren ikuspegi kritikoek, besteak beste, heroia beharrean hiltzaile bat zela diotenak, izango al dute lekurik ezagutza horretan?
Uste dut iragana arakatzeko aukera dugula begirada kritiko batekin. Elkano bera ikertzeko aukera gutxi dago, datu berriak ager daitezke baina hori mugatua da, historiaren ikuspegia nahiko

mugatua da. Zientziak ikasteko parada gehiago ematen digu: astronomiak, nabigazioak, botanikak, biodibertsitateak...

Izebergaren irudia erabiltzen dugu askotan azalpenetarako. Oroimen ekitaldiak eta Fundazioa Elkanoren aitzakian sortu dira, kulturalki 500. urteurrena garrantzitsua da. Hala ere, gure begirada ez doa izeberg horren gainean ikusten den horretara, Elkano eta mundu birara, baizik eta azpian dagoen guztira, garai hartako itsas kulturara, itsasoarekiko harremanera, herri baten teknologia ezagutzera...

Beti esaten dugu mundu bira zirkunstantziala izan zela, ez zen helburua, ez zegoen planifikatuta, gauzak hala gertatu ziren eta bira osatu egin zen. Halere, ez zen kasualitatea izan: garai hartako itsasontzi asko gaur egungo Euskal Herrian egiten ziren, orduko espedizioetan euskal marinel asko joaten zen eta bira hark islatzen du garai hartako euskaldunon ekarpena, itsasoarekin zegoen lotura tinkoa.

Zer landuko da proiektuetan zehazki?

Mundu birako zientziak lantzen ari gara eta lau ardatzetan sakondu nahi dugu: itsasoaren zaintza, teknologia eta ontzigintzaren ezagutza, jakiak eta jasangarritasuna, eta garapena eta ondorioak.

Ikerketa eta mundu akademikoari lotuta, tesiak eta bekak ditugu, baina horiek epe bat behar dute; hortik etorriko da ezagutza berria. Udako ikastaroa dugu uztailaren 4ean eta 5ean, programa nahiko anitz eta zabalarekin. Bestalde, Elkano katedra sortzeko finantzaketa bilatzen ari gara.

Jendarteratzea bermatzeko kolaborazioak ditugu lotuta.

"Lau ardatzetan sakondu nahi dugu: itsasoaren zaintza, teknologia eta ontzigintzaren ezagutza, jakiak eta jasangarritasuna, eta garapena"

Elkanok egindako mundu biraren mapa. /Arg.: Elkano Fundazioa.

Adibidez, *National Geographic* aldizkarian 20 orriko artikulu bat kaleratuko da urrian eta azaroan, euskaldunon ekarpena balioan jartzeko. *History Channel*ekoak hemen izan ziren grabaketa nahiz elkarrizketa batzuk egiten; datorren urtean liburu bat ere argitaratuko da Daniel Zulaikaren proiektu baten ondorioz eratuko dena.

Kirol esparruan, antzerkian, dantzan, musikan eta abarretan ere ari gara gauzak egiten.

Elkarlana bilatu duzue beste erakunde batzuekin, ezta?

Lankidetza maila ezberdinak dauzkagu, lokalena Getariakoa da, eta baditugu euskal kostalde edo Euskal Herrikoa, estatukoa eta nazioartekoa ere. Horietan harremanak eta proiektuak bultzatzen ari gara eragile ezberdinekin.

Zein jarrera dute nazioartean proiektu horiekiko?

Txilerekin, Cabo Verderekin, Filipinekin eta abarrekin gaude harremanetan. Lehenengoekin ari gara batez ere gauzak egiten, astronomiako gaiak eta bestelakoak lantzen.

Oso irekita daude kolaboratu eta oroimena lantzeko baina, noski, guk ikuspegi bat dugu eta beraiek berehala desegiten dute hori. Esaterako, duela egun batzuk egon nintzen antropologo txiletar batekin eta bere ikuspuntua erabat ezberdina da. "Hau guk deskubritu genuen", diogu guk; hark, berriz, "hori? Hori bazegoen, bere garaian beste batzuek deskubritu zuten". Bakoitzak geurera egiten dugu eta garrantzitsua da hori onartzea. Horrek guztiak apaltasun pixka bat ematen du.

Zentzu horretan, Fundazioak bilakaera bat izan du eta dagoeneko ez ditugu aipatzen ospakizunak eta omenaldiak, horrek itsutu eta ikasteko aukerak mugatzen ditu.

Kolaborazioez harago, batzuek Elkanok lortutakoa goraipatzeko egitasmo propiak prestatu dituzte, adibidez, bizikleta ibilbidea espainiar estatuan zehar edo Elkanoren zeruertza programa. Halakoek bilatu al dute zuekin elkarlanik?

Honekin guztiarekin itxaropen asko sortu da. Eragile pribatu asko etortzen da gugana beraien ideia bultzatu nahian, lankidetza bila. Lehenago azaldutako irizpideek erregulatzen dute gure kolaborazioa, batzuk sartzen dira gure asmoetan, beste batzuk ez.

Adibidez, jarri asmo duten *escape room*ekoekin historiaren ikuspegia lantzen saiatu gara, zer kontatu behar den aztertzen. Ez daukagu egia biribilik, ahalegindu gara ikuspegi anitzak kontrastatzen eta barneratzen. Izan ere, kontua ez da produktua, baizik eta hori zertarako erabiliko den.

Irailerako badago egitasmo bat zuek ere bultzatzen ari zaretena.

Esan bezala, Fundazioak ateak irekitzean herritar talde bat etorri zen gugana. Kasu hauetan ez dagokigu guri zer egin behar den esatea, herriari baizik, berak jarri behar ditu edukiak. Horrela, itsasoratzea ospatu nahi dute.

Hasierako taldea handitu egin da eta jarduera batzuk talde txikietan bideratzen ari dira. Horren barruan, historiaren hedapena bermatzea zen nire egitekoa. Horri begirako ekimen txiki batzuk badaude, eta horrekin zentzua hartzen du kolaborazioak.

Fundazioaren aurkezpenetik aipatu izan duzue helburua ez dela 2019tik 2022ra ekintzak antolatzea bakarrik, ondare bat utzi nahi duzuela. Zer ondare?

Lehen aipatutako sare lanekin lotuta, lortu behar da prozesu batzuk egonkortu eta bidea egitea. Beti esaten dut fundazio instrumentala garela, gu pasadizoan gaude baina hemengo eragile asko ez. Proiektu jakin batzuk ondo bideratzen badira, fundazioa kenduta, jarrai dezakete.

Horren adibide izan daiteke itsasoratzea. Demagun hemendik lau urtetara berriro egin nahi dela. Fundazioa ez da egongo orduan, baina ekimenak jarraitu dezala, herriak hala nahi badu...

"Fundazio instrumentala gara, pasadizoan gaude baina hemengo eragile asko ez"

Bestalde, katedra batek dakarrena geratuko da, ezagutza berria sortzea bada ondarea; Fundazioak hori ere utzi nahiko luke. Horregatik, ezagutza hori guztia digitalizatu nahi dugu, hemengo Udalak, liburutegiak eta bestelako erakunde batzuek har dezaten.

Mundubira. Elkano. Primus antzezlaneko irudi bat.

Elkanoren inguruko bisita gidatua, Rafa Zulaikarekin.

Herritarren interesetik ekintzetara

Hilabeteak daramatzagu munduaren lehen biraren 500. urteurrenaz entzuten, handik eta hemendik datozen ekintzen inguruko berriak jasotzen, tartean azkenaldian herrian hainbesteko zeresana eman duen *Juan Sebastian Elcano* itsasontziaren bisita. Bada, ordea, Elkano Fundazioa eta enparauak zertan dabiltzan garbi ikusten ez duenik, besteak beste, bertatik bertarako ekintzen falta sumatzen duelako zenbaitek. Irailaren 14 eta 15eko asteburuak aldatuko du sentsazio hori.

Ekintza ugariko asteburua ari dira antolatzen Elkano Fundazioko zein Udaleko ordezkariak eta hainbat herritar. Egitekoen artean bat izango da nagusia: Elkanoren espedizioaren itsasoratzea irudikatzea. Kosta inguruko itsasontzi, txalupa zein bestelako ontziak batu eta elkarrekin irtengo dira itsasora.

Herritarrek ekimenarekin bat egiteko, aurrez herrigunetik moilara jaitsiko dira musikaz lagunduta. Portuan egingo da ekitaldi instituzionala eta bertan egoteko gonbita egingo zaie Elkanoren espedizioarekin lotutako herrietako ordezkariei.

Ekitaldi instituzionalaren baitan, itsasoari lotutako ituna irakurriko dute, atxikimendua emanez. Hitzarmen horretan mundu biraren garrantzia nabarmenduko da, Euskal Herriaren parte-hartzea azpimarratuz. Horrekin batera, gizakiarentzat, Europarentzat eta

Itsasoratzea egin nahi dute aurten.

munduko historiarentzat izandako aldaketa ekarriko dute gogora.

Ordukoa gaurkotuz, egun itsasoarekin dugun harremana aztertuko dute, hau zaintzeko beharra nabarmenduz. Itun horren originala Getarian geratuko da eta antolatzaileen asmoak betetzen badira, atxikitzen diren herriek kopia bat eramango dute.

Ekimen hori irailaren 15erako, iganderako, programatu dute antolatzaileek.

Beste ekintzak

Hainbat herritarrek aspaldi erakutsi zuten mundu birarekiko interesa, besteak beste, 2017. urtean Udalak martxan jarritako parte-hartze prozesuarekin bat eginez. Oroimenerako ekitaldiak proposatu zituzten orduan, eta taldetan banatuta, egitasmoaren lehen asteburuko ekintzak antolatzen dabiltza orain.

Adibidez, herritarrek hartu dute irailaren 14ean egingo duten sukaldaritza lehiaketaren ardura. Jaietan ohi den moduan, txapelketa egingo dute arroza prestatzeko. Alabaina, espeziak erabili beharko dira, hori izango da bereizgarria. Horren arrazoia? Mundu bira gauzatu zuen espedizioaren hasierako helburua zen espeziak zeuden uharteetara merkataritza bidea irekitzea eta, hain zuzen ere, haiekin itzuli ziren mundu biratik.

Arroz lehiaketaren ondoren herri bazkaria egingo dute.

Lehenago, goizean, haur zein helduentzako tailerrak eta jolasak izango dira, Elkanorekin, baina batez ere itsasoarekin lotutakoak. Hala, astronomia tailerrean, ipuin kontalarien emanaldian edo herrian zehar egingo den ginkanan parte hartzeko aukera egongo da.

Egun berean ur jolasak egiteko asmoa dute antolatzaileek, oraindik guztiz zehazteko dauden jarduerekin. Gainera, musikarik ez da faltako mundu biraren 500. urteurrena gogoratzeko herrian egingo diren lehen ekintzotan.

Herritar, erakunde zein eragileak jo eta su ari badira ere lanean, gauzak guztiz ixteko daude oraindik. Datozen asteetan zehaztuko da programa, eta xehetasunak egon ahala azalduko dizkizuegu **www.artzape.eus** webgunean zein **ARTZAPE aldizkarian**.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

Argazkia: Euskarabentura.

Uztailaren 1etik 31ra egingo da Euskarabentura egitasmoaren bigarren edizioa. Maulen hasi eta Getxon amaituko da, 783 kilometro osatuz. Bi getariar izango dira euskara bultzatzeko abenturan.

Testua
IURE EIZAGIRRE

Euskarabentura

AURRERAPAUSOAK OINEKIN ETA EUSKARAREKIN

Euskarak badu ibilbidea, ez soilik historian zehar egindakoa, bere garapena erakusten duena. Iaztik beste bat du, gazteentzat eratua, Maulen hasi eta Getxon bukatuko dena: Euskarabentura. Hizkuntza bultzatzeko, euskal kultura eta historia ezagutzeko, eta parte-hartzaileen arteko sarea sortzeko asmoa du.

Beste herrialde eta hizkuntza batzuei lotutako udalekuak hedatzen hasiak diren garaiotan, uda euskaraz pasatzeko proposamen berri bat sortu zuten iaz: Euskarabentura. 16 eta 17 urte bitarteko gaztetxoentzat antolatutako egitasmoak aurten izango du, beraz, bigarren edizioa, uztailaren 1etik 31ra.

Guztira, 121 gaztek hartuko dute parte, iaz baino 11 gehiagok. Horien artean izango dira Euskal Herriko biztanleak zein diasporakoak, beti ere lurraldeen arteko oreka mantenduz. Aurtengo *jzioquitar*ren artean —honela deitzen diote gazte parte-hartzaileei— izango dira Aingeru Aizpurua eta June Eizagirre getariarrak.

Ikastetxean izan zuen Euskarabenturaren berri Aizpuruak: "Gelako gehienok esan genuen apuntatzeko gogoa genuela; lagun bat eta ni hasi ginen prestatzen. Astebete eduki genuen jai, ni lana egiten hasi nintzen eta laguna atzera bota zen azkenean". Eizagirrek, berriz, lagun baten bitartez jakin zuen egitasmoaz.

Biek egin behar izan zuten Euskarabenturak eskatutako lana. Formato ezberdinetan aurkezteko aukerarekin, hiru gai landu zitzaketen: migrazioen testigantzak, Euskal Herria eta bere aztarna ekologikoa, eta errimak eta erritmoak. Hain zuzen ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez, eguneroko ibilbidearen ondoren egingo dituzten ekintzak gai horiekin lotzen saiatu dira.

Arratsaldero burutuko dituzte topaketa horiek. Hala azaldu du Eizagirrek: "Herriak ezagutzeaz gain, hainbat hitzaldi izango ditugu (euskal kulturari buruz, lurralde bakoitzeko euskararen erabilerari buruz, feminismoaren inguruan, aldaketa klimatikoaz...); bestalde, zenbait erakusketa ikusiko ditugu, kirol ekintzak, jokoak... Aspertzeko denborarik ez dugula izango iruditzen zait".

783 kilometro

Oinezko ibilbideari dagokionez, uztailaren 1ean Maulen hasi eta hilaren amaieran Getxon bukatuko da. Parte-hartzaileek 783 kilometro egingo dituzte 31 etapatan.

Getariarrak, gutxiago edo gehiago, prestatzen ari dira. "Gehiegi ere ez, baina bueltatxo batzuk egin ditut", dio Eizagirrek; "asteburuan hamar-hamabi kilometro egiten ditut egunero. Astean zehar denbora badut, bakarrik joaten naiz eta 8-10 kilometro egin", aldiz, Aizpuruak.

Uztailaren 25ean igaroko da Euskarabentura Getariatik; *jzioquitar*rek kasu egin ahal izango diete etxekoei baina ezingo dute bertan geratu.

Euskara sustatzea helburu

Hiru asmo ditu Euskarabenturak: euskara bultzatzea, euskal kultura eta historia ezagutzea, eta gazteen arteko euskarazko sare bat sortzea. Getariako gazteek, ordea, beraien helburuak dituzte. "Euskal Herriko bazterrak ezagutzeaz gain, lagun berriak egin, euskal kulturaz sakondu, kirola egin... eta batez ere, ondo pasatzea" du xede Eizagirrek; "jende berria ezagutzea, ondo pasatzea eta bidea ezagutzea zein herri ezberdinetan zer egiten den jakitea", berriz, Aizpuruak.

elan euskadi
ONGD - GGKE

Erretorikak ekintza politikoa irabazi

Aurrekoan Sofia Marroquin Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeko presidentearen testu bat topatu eta, esandakoarekin bat eginez, zuengana ekarri dugu.

"Zenbait euskal administrazio publikok bilketan markak hausten dituztela ospatzen duten bitartean, Jaurlaritzaren garapen-lankidetzarako 2019ko dirulaguntzen deialdiak murriztu egin du EAEko garapenerako GKEek gauzatutako ekimenak eta proiektuak babesteko ahalmena.

Kalkuluen arabera, murrizketaren ondorioz baztertu egin beharko dira planetako eskualde behartsuetan egingo liratekeen hogei bat proiektu. Garapenerako GKEek euskal gizarte solidario eta konprometituaren babesarekin egiten dugun lanaz ari gara: ura, saneamendua edo osasuna bermatzeko, milaka pertsonek eskolara joateko aukera izateko, azpiegiturak eta emakumeen eta gizonen arteko ekitatea sustatzeko, edo erakundeak indartzeko, adibidez.

Lankidetza-politika 2008an hasitako krisi globalak gehien eragindakoetako bat izan zen; murrizketa handiak egin eta arriskuan jarri zen solidaritatea, guztion ongizatea, giza eskubideak betetzea edo desberdinkerien aurka borrokatzeko konpromisoa bezalako balioen defentsa. 2010-2015ean, herrialde pobretuetan proiektuak gauzatzera bideratutako funtsak %33,5 murriztu ziren, eta garapenerako GKEen %30ak toki erakundeekin lan egiteari uzteko erabakia hartu behar izan zuten, baita esku hartzen zuten herrialde batzuetan lan egiteari uztea ere.

2019an Eusko Jaurlaritzaren baitako aurrekontu-luzapenak atzetik borondate politikoaren gabezia dakarren hori estaltzeko balio izan du. Bilketaren arloko marka historikoa ezarri duen urte baten ostean lankidetzara bideratutako funtsen bolumenari eusteko gai ez den gobernua daukagu. Horrek solidaritate eta giza eskubideen defentsarentzat oso konplikatua den agertokian jartzen gaitu berriz.

Euskadiko garapenerako GKEak aurrekontu-murrizketako agertoki batean gaude orain, zeinetan Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentzia indartzeko apustua egiten duen, gizartea eraldatzeko lankidetza- eta heziketa-proiektuak finantzatzeko eskuragarri dauden funtsak nabarmen murriztea ahalbidetzen duen bitartean. Egoera nahasgarria da, eta kezkatuta gaude.

Talde politikoak ere ez daude pozik lankidetzako politika publikoa sustatzeko erakundeen aldeko konpromiso faltarekin. Uste dute aurrekontu-zuzkidura egonkorra eta nahikoa behar dela, lankidetzako euskal legeak jasotzen duen moduan, aurrekontu osoaren %0,7ra iristen dena. Legeak sustatzen dituen lankidetzaren arloko konpromisoak eta akordioak lortzearen aldeko apustua egiten dute. Halaber, Euskadiko garapenerako GKEen lana aitortu eta babesten dute: zorionak eman eta lanean jarraitzeko animatu, pobreziaren eta desberdinkerien aurkako borrokan eragiteko gauzatzen dugun ahalegina balioan jarriz. Hala ere, babes hori ez da erabaki politiko zehatzetan burutzen, eta hitzak letra hil bihurtzen dira. Erretorikak, beste behin ere, partida irabazten dio ekintza politikoari.

Graça Machel Mozambikeko aktibistak hau dio: 'Pribilegioak dituzunean, zure erantzukizunak onartu behar dituzu. Ezin ditugu gure betebeharrak bazter utzi munduan konpontzeko arazoak dauden bitartean'. Ezinbestekoa da bulegoetan erabakiak hartzen dituztenek jakitea erabaki horiek pertsona askoren bizitzetan ondorioak dituztela. Giza eskubideak eta bizitza duina arriskuan daude, eta ezin diegu bizkarra eman.

Gure sarea osatzen duten 79 garapenerako GKEek gobernuari eskaintzen dizkiogu esperientzia, ezagutzak, kolaborazioa eta eskua, seguru partekatzen ditugun helburu batzuk lortzeko lanean jarraitzeko. Konfiantzaz eta noranzko berean lan egin behar dugu, erritmoz. Hori egin ezean, mundu-mailako mehatxuek (pobrezia, desberdinkeria, bidegabekeria, klima-aldaketa eta planetaren iraunkortasuna, muturreko eskuinaren gorakada, indarkeria matxista, krisialdi humanitarioa, nahitaezko migrazioa...) hedatzen jarraituko dute.

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

Arrauna II

Ekaineko alean arraunaren gaiari heldu bagenion, oraingoan jarraipena ematera goaz. XIX. mende amaierako gora-beherak alde batera utzita, XX. mende hasieran zentratuko gara, 1911. urteko pasarte batean zehatzagoak izanda. Kontxako estropadei edo, udal aktetan aipatzen den moduan, Donostiako estropadei egiten zaizkien aipamenak hartuko ditugu kontuan. 1898. urtean estropadan parte hartzeak eragiten zuen gastua arazo potoloa zen bezala, 13 urte geroago berdin izaten jarraituko zuen, estropadan garaile ateratzen ez baziren betiere.

1898an dirulaguntza ez jasotzearen zergatiak ondo ulertu zituzten getariar arraunlariek, eta horregatik, 1911. urtean Casildo Alcortak, arraunlarien izenean, dirulaguntza eskaera formala askoz lehenago aurkeztu zuen Udalean. XXII. Donostiako estropadak 1911ko irailaren 8 eta 9 artean jokatuko zirela argitzen du dirulaguntza eskaerarekin batera doan idatziak, behin eta berriz errepikatuz arraunlarien helburu nagusia herriaren izena eta ohorea ahalik eta goren altxatu eta ahalik eta jende gehienaren belarrietara iristea zela.

Gauzak horrela, 1911ko irailaren 5eko udal aktan argitzen den moduan, udal batzarrean gai hau jorratu eta ondorengo erabakia hartu zen: "*Si en el regateo de que se trata los tripulantes de Guetaria obtienen el primero de dichos dias el premio de 500 pesetas o en este mismo dia el de 750 y en el siguiente el de 1000, se les concederán 500 ptas; si solo obtienen el premio de 750, el segundo premio del primer dia, se les den de los fondos de Municipio otros 750 para resarcirse de parte de los diferentes gastos que se les ocasionan por la asistencia*".

Eskaera ondo aurkeztu eta Udalaren baiezkoa jaso ostean, XXII. Donostiako estropadako lehen postua eskuratu zuten getariarrek, Francisco Arregui patroi lanetan zela. Hori bai, beste ale batean aztertuko dugunez, polemikaz beteriko estropada izan zen. Aztergai dugun urte honetan dirulaguntza beharrik ez zuten izan arraunlariek, baina gutxienez, gaurkoan badakigu 13 urte lehenago gaizki egindakoaz ondo ikasi zutela eta berriro gastuak beren poltsikoetatik ordaintzeko asmo askorik ez zutela.

Los remeros, Natalia Sergeevna Goncharovaren artelana

Alde hemendik!

Uztailaren 6 an *Juan Sebastian Elcano* Espainiako itsas armadako ontzia Getariara dator Elkanoren mundu biraren harira. Itsas zeharkaldi bat egingo da; "omenaldi bezala", diote eta lau ontzidiek hartuko dute parte (merkataritzakoa, arrantzakoa, militarra eta kiroletakoa). Barrutik barkuak bisitatzeko aukera ere izango da.

Hedabideetan "euskaldun unibertsala" bezalako kontzeptuak harro zabaltzen diren bitartean, hara non Espainiako armadako ontzia Getariara, eta herriko Kofradiaren babesarekin, gainera! *Harrapazan/k*! Gaur egunean futbolean espainiar selekzioarekin munduko txapelketa irabazi eta euskaldunak munduan present gaudela, euskal baloreak zabaltzen etab. esatea bezala litzateke. Errealitate gordina da, ordea, Elkano gaztelar erreinuaren ontziko partaide zela.

Zein balore nahi dira transmititu itsasontzi hori Getariara ekarri eta bisita gidatuak eginez, bakezaletasuna, akaso? Edo Espainiaren eskuzabaltasun eta onkeria Euskal Herriarekiko eta munduko beste herrialdekiko, agian? Baina ez du inporta, lasai; harrijasotzaileak, dantzaria aurreskua egiten, jan festa jarri ta "denok gustura", gure euskal ukitu berezia hortxe izango dugu.

Juan Sebastian Elcano.

Herritarrok ezin ditugu babestu horrelako ekimenak! Argi izan behar du barku hori bisitatzen duenak eta ekintzetan parte hartzen duenak, hautu bat egiten ari dela, espainiar erreinuaren, gerren eta kolonialismoaren aldean ari dela kokatzen. Ez du balio umearekin joatea eta esatea "*eske* ze polita, niri politika bost..." eta gisakoak.

Kasualitatez, aurten bertan (500 urte pasata, baita ere) Andres Lopez Obrador Mexikoko presidenteak espainiar gobernuari barkamena eskatzeko eskatu dio, konkistan egindako basakeriengatik. Horren erantzuna, aldiz, guztiz gaitzesten duela eskakizun hori, bi herrialdeek beti anaitasunez jakin izan omen dutela historia irakurtzen, gorrotorik gabe... Egia esan Elkanoren urtemuga hau ere aukera paregabea zen kolonialismoaren gaia era sakonean lantzeko, kolonizatzaile eta kolonizatu izan baikara euskaldunok aldi berean.

Baina "ahaztu kolonialismo, zapalkuntza eta horrelako istorioak, turismoa/dirua ekarriko baitu Elkanoren kontu honek guztiak herrira"; esan ez, baina hortik doaz tiroak eta tamalez, herritar batzuen pentsamenduak ere bai. Aldi berean, paperean eta diskurtsoan, kultura politiko berri, elkartasun, balore eta abarrak agertuko dira.

Horrez gain, inplizituki gizartean kalte handia egiten ari zaizkigun pentsamoldeak indartzen ari dira Elkanoren figurarekin: ekintzaile bikaina zela (*emprendedor*), bere ahaleginarekin ikaragarrizkoa lortu zuela... Adegiko presidentea izango litzateke gaur egunean. Alegia, "amets amerikarra" bezala ulertzen duguna da: saiatzen bazara, dena lortuko duzu, dena zure gain dago, gaizki badoakizu zure errua da... Neoliberalismoaren beste ikur bat martxan.

Gaia zabala da baina Elkanoren mundu birak oro har politika mailan lortutako kontsentsu edo kritika eza nahiko harrigarria da. Gaur egunean hain modan dauden elkarbizitza eta desberdinen arteko akordio horietako bat ote da ba? Denak ados izatea non eta historia eta turismoa ardatz dituen proiektu batean...

getariako udal liburutegia

Historia ez da biribila

Munduari bira emateko itsas bidaia hartan, 1519ko udatik 1522ko iraila bitartean armadakoek burutu zituzten gerrak, hilketak, heriotza zigorrak, giza ehizak, desterruak, bahiketak, esklabo salerosketak, txikizioak eta era askotako bortxakerietatik batzuk irakur ditzakezu Getariako liburutegian dauzkagun ale hauetan:

- *La Primera vuelta al mundo* izeneko bilduma, Miraguano argitaletxea, 2012. Liburu honek biltzen ditu zazpi pieza: 1) Elkanoren gutuna Enperadoreari, 2) Maximiliano Transilvanoren gutuna, 3) Francisco Alboren idazkiak, 4) Duarte Barbosaren lagun portugaldar baten kontakizuna, 5) Genoako pilotu baten kontakizuna, 6) Gines de Mafraren kontakizuna, eta 7) Antonio Pigaffeta italiarraren egunerokoa; denen artean azken hauxe da kontakizun luzeena eta nagusia.

- Ramon Seoane Ferrerrek idatzitako *Juan Sebastian Elcano*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1929.

- Juan Cabalek idatzitako *Juan Sebastian Elcano*, Juventud Coleccion Para Todos, 1944.

- Eta euskaraz, Gari Berasaluzek idatzitako *Elkano, itsasoak emandako bizitza*, Txalaparta, 2008.

Munduari bira ematera abiatu baino lehen, Espainiako armadarekin bi gerra hauetan parte hartu zuen Elkanok: Orango Konkistan 1509an, Cisneros kardinalaren agindupean; eta urte batzuk geroago, Italiako gerran, Gonzalo Fernandez de Cordoba (Gran Capìtan) militarraren agindupean.

Frankismoan plazara

Getariako Plazan dagoen marmol zurizko estatua Ricardo Bellver eskultoreak egindakoa da 1881ean, Espainiako Ministerio de Ultramar (Ministerio de Asuntores Exteriores) delakoaren enkarguz.

Espainiako Bigarren Errepublika garaian, Getariako Udaleko arkitektoak Elkanoren estatua hura eskatu egin zuen bertarako, eta Ministerioak baiezkoa esanda, 1934an Madrildik Getariara ekarri zuten. Halaxe adierazita dago 1934ko irailaren 21eko udalbatzarreko aktan.

Gerra garaian, 1937ko uztailaren 25ean alkateak eta udalbatza frankistak erabaki zuten: 1) Altxamenduaren urteurrena zela-eta, Francori atxikimendu telegrama bidaltzea, eta 2) Elkanoren estatua herriko plazan jartzea. Abuztuan ipini zuten plazan, eta ofizialki irailean inauguratu, "*cabalgata de Elcano*" deitzen zuten egunean.

Honela azaldu zuen *Jaca Española* (*Órgano de la Oficina de Prensa y Propaganda*) aldizkariaren 349 zenbakiak 1937ko irailean: "*En la ruta imperial de España, Guetaria es uno de los hitos más importantes. Hoy, día 5 de septiembre, se verificará con especial solemnidad una ceremonia de simulacro: el arribo de Juan Sebastián a su villa natal, el paseo triunfal en carroza por las calles del pueblo, entre vítores y aplausos. He ahí cómo al identificarse Guetaria con la heroica empresa y venerar cada año al marino que allí nació con esplendores del sol, mantiene limpio y cuidado un hito imperial español*".

Agur Iturzaeta

Ai ene! Konturatu gabe iritsi zaigu Iturzaetako ikasle bezala ARTZAPEn idazteko azken aukera. Gai asko landu ditugu ARTZAPEn, baina azken hau berezia eta ezberdina da; oraingo honetan gure agurra egiteko aprobetxatu nahi dugu. Horretarako, izandako bizipen asko gogoratu ditugu eta horien laburpen txiki bat egingo dugu. Espero dugu asko gustatzea.

Haur Hezkuntzako etapa Dora eta Maribel irakasleekin egin genuen. Dorarekin egindako jarduera asko gogoratu ditugu, baina denok barrez lehertu gara Dora kartzelan sartu genuen mementoa gogoratzean. Ai, ai, ai... txikitatik bihurrikeriak egiten.

Eta Maribel denbora baino lehenago jubilatu genuenean? Izan ere, Maribelek 55 urte bete zituen egunean, hurrengo urtean zenbat beteko zituen galdetu zigun eta guk, logika jarraituz, "66 urte", erantzun genuen. Memento horretan ez genuen ulertzen zergatik egiten zuen barre Maribelek.

Lehen Hezkuntzan irakasle gehiago ezagutu ditugu. Hiru tutoreez gain, musika, soinketa eta ingeleseko irakasleak izan ditugu. Mota guztietako bizipenak izan ditugu, baina egia onartu behar badugu, onak txarrak baino gehiago izan dira.

Kontxirekin irakurtzen eta idazten denbora asko pasatzen genuen. Alfonbra gainean eserita ipuinak entzun eta irakurtzen egotea izaten zen gehien gustatzen zitzaiguna. Maiterekin ezin ahaztu gure bizitzako lehenengo azterketak egin genituela. Urduri jartzen ginen eta ez zegoen jasango gintuen irakaslerik! Hori bai, gero denok gainditu genuela jakiten genuenean,

hura festa! Baina azterketak egiteaz gain, tutoretza saioetan egindako jolasak gogoan ditugu.

Naiararekin, berriz, azkenengo bi urteak egin ditugu, Iturzaetako azkenengo bi urteak. Eta guk nahi baino azterketa eta etxerako lan gehiago eginarazi dizkigu.

Hala ere, bada ahaztuko ez dugun irteera bat ere. Ahetzera joan ginen egunean, gure gelakide batek min zuen hankean eta pixkana-pixkanaka atzean geratzen joan ginen. Ez genuen bidea ezagutzen eta galdu egin ginen. Ohikoena urduri jartzea izango litzateke, baina ez, denok barrez hasi eta nahiz eta inguru berdinean bueltaka ibili, baserritar baten laguntzaz taldekideak bilatu genituen. Horiek algarak egin genituenak!

Horrela hemen bukatzen da gure ibilbidea. Alde batetik, oso triste gaude bukatzen delako, baina, aldi berean, oso pozik etapa berri bat hasiko dugulako, eta, behingoz, talde txiki batetik talde handi batera pasako garelako. Horrela izanik, guk faltan botako ditugu gure irakasleak, baina nahiz eta gutxi izan, beraiek ere ez gaituzte berehala ahaztuko.

Ikasturte amaiera

Kaixo urritzakideok:

Urte zoragarria eta ahaztezina igaro dugu zuekin. Jolas desberdin ugari egiteko aukera izan dugu eta gurekin batera une itzelak igaro dituzuelakoan gaude. Gu ere zuekin ederto ibili gara!!!

Ekintza ugari burutu ditugu batera: igande eguzkitsuetako ekintzak, hondartza garbitu, Txuri Urdin, eskolako festa eta azkenik, San Juan festak, besteak beste. Azken horrekin udara heldu zaigu eta guztiok iristeko irrikitan egoten garen Urritzaren Txiki Txokoa eta udalekuak ere bai.

Esan beharra dugu aurten inoiz baina haur gehiagok eman duzuela izena. Hau guretzat oso pozgarria da eta lanean jarraitzeko eta herria girotzeko indarrak ematen dizkigu. Zuen laguntzarik gabe, ezinezkoa egingo bailitzaiguke elkarte moduan lan egitea.

Eskerrik asko eta laster arte!

GOIATZ LAZKANO

Albertxikoak labean ahuntz gaztaz

Kaixo denoi!

Hemen dugu udara! Ez dugu denok berdin bizitzen urtaro hau: batzuk oporrak, beste batzuk oraintxe dute lan gehien... Hala ere, guztiok pairatuko ditugu sasoi honek dakartzan tenperatura altuak. Gorputz bakoitzak ezberdin jasaten duen arren ingurumeneko tenperatura, honen igoerak eragiten dituen sintomak berdinak dira denontzat: izerditzea, tentsioa jaistea, deshidratazioa... Hauen aurrean norberak hartu behar ditu neurriak ondo senti gaitezen (hidratatu, eguzkipean egotea kontrolatu, behar bezala deskantsatu...).

Onartu beharra dugu argi eta tenperatura aldaketekiko sentiberak garela. Gure gorputz, buru eta emozioak sentiberak dira ingurugiroko aldaketen aurrean eta oso normala da nekatuago, pisutsuago zein suminduago sentitzea. Hau onartu eta jarrera osasungarri bat hartuz gero, askoz hobeto eramango dugu.

Hau guztia esanda, udaran ezaguna dugun fruitu batekin eginiko errezeta bat proposatu nahi dizuet. Ale honetan albertxikoa edo albarikokea dugu protagonista: Asian du jatorria fruitu honek eta sagar, melokotoi edo gerezien familia berdinekoa da, besteak beste. Nutrienteetan aberatsa da eta ez du grasarik bere konposizioan.

Osasuntsuen jateko modua, ia beti bezela, garbituta eta gordinik izaten da baina zerbait berezia egite aldera, errezeta sinple bat dugu oraingoan. Udan hara eta hona gabiltza, lagun artean, denbora askorik gabe sukaldean lanean jarduteko, horregatik pentsatu dut egokiagoa dela zizka-mizka antzeko zerbait proposatzea:

Albertxikoak labean ahuntz gaztarekin

Osagaiak:

- Oliba olioa.
- Limoi azalaren birrindura.
- Oreganoa.
- Ahuntz gazta.
- Albertxikoak.
- Ogia.
- Gatza eta piper beltza.

Prozedura:

- Labea 200°-tan berotu. Bandeja bat prestatu paperarekin bertan albertxikoak jartzeko. Fruta garbitu, erditik ebaki eta hezurrak kendu. Ipini albertxikoak azalaren aldea beruntz begira dutela eta olio, gatz eta piper beltzarekin prestatu labean sartzeko. 9-12 minutuz utzi egiten.

- Ogia xerretan moztu eta txigortu labean, txigorgailuan edo zartagin batean.

- Ahuntz gazta limoi-azal birrindurarekin nahasi eta oreganoa gehitu, pate antzeko bat eginez.

- Aurkezteko, ogia gaztaren nahasketarekin estali, gainean albertxikoa jarri eta gazta zaleak izanez gero, gainean gazta huts zatitxo bat gehitu. Albahaka freskoarekin apaindu eta...

on egin!

ANDRES ALBERDI

Txitxa

Getariarrontzat guztiz ezaguna den *txitxa* hitza zeharo ezezaguna da kanpotarrentzat. Ez da ageri, gainera, inongo hiztegitan, eta ez da erraza bere jatorria edo nondik norakoa antzematen. Getariar arrantzale-giroko esaldi ohikoak dira hauek: *Kriston txitxa egin diat* edo *Gaur ere txitxa eginda ibili gaituk eta... txibi gutxi!* Arrantza-aparejoko kristalina nahasteari esaten diogu horrela Getarian. Ez diogu sinonimorik aurkitu hiztegietan; ezta ere gaztelaniaz zein hitz erabiltzen den *txitxa*ren ordaina izendatzeko (*enredarse el sedal* erabiltzen da).

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com*era ezagutzen dituzun hitzak.

AMAIA IRAZABAL

Pentsatu dut

"Askatu nahiko nizuke tristura.

Bi trentza luze horietan

kateatuta gelditu zaizuna.

Baina ez ote dit nahi gabe

ihes egingo pozak?

Ez ote dit konturatu gabe

irrist egingo zoriontasunak?

Kanpora orraztu nahiko nizuke tristura.

Bi trentza horietan korapilatu zaizuna.

Hiru zatitan banatu gero berriz poza,

irrist egin ez dezan gogor heldu,

eta txirikordatuko dizut zoriontasuna."

Azken aurrekoa zara supermerkatuan.

Bost gauza baino gutxiago eskuan.

2019ko UZTAILA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

1-30 Al.-Or.
Udaleku irekiak eta Txiki Txokoa
Ordua: *09:30*
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Elkartea*

5-7 Or.-Ig.
Elkanoren Zeruertza

5 Ostirala
- *17:00etan, plastiko, ozeano eta ekonomia zirkularrari buruzko tailerra eta proiekzioa Sail in tourrekin.*
- *19:00etan, Jose Antonio Azpiazu, Fernando Txueka eta Patxi de la Hozen mahai ingurua kofradian.*
- *21:00etan, atari zabaleko zinema Sail in tourreko filmeekin, portuan.*

6 Larunbata
- *16:00etan, Elkanoren Zeruertza Gunearen irekiera: ginkana Arazirekin eta belaontzi baten eraikuntza tailerra Aquariumaren eskutik.*
- *17:00etan, estropu eraikuntza tailerra Pasaiako Itsas Eskolaren eskutik.*
- *18:00etan, film emanaldia Mater ontzian.*
- *18:30ean, ontziak heltzeko azken ordua.*
- *19:00etatik 21:00etara, ontziak bisitatzeko aukera.*
- *20:00etan, Juan Sebastian Elcano ontziaren porturatze maniobrak.*
- *20:00etan, Elkanoren Zeruertza Gunearen itxiera.*
- *20:30etik 21:30era bisita Cristobal Balenciaga Museora.*
- *21:30etik 23:30era, afaria Cristobal Balenciaga Museoan eta sari-banaketa.*

7 Igandea
- *08:00etan, Getariako txistularien diana.*
- *09:30ean, agintari eta prentsaren bisita Juan Sebastian Elcano ontzira.*
- *10:00etan, ontziak bisitatzeko ordutegiaren hasiera.*
- *11:00etatik 12:15era, itsas elizkizuna.*
- *11:00etatik 20:00etara, Elkanoren Zeruertza Gunearen irekiera.*
- *11:00etatik 11:45era, Elkanori buruzko ipuin tailerra.*
- *12:00etatik 13:45era, Elkanoren maskara egiteko tailerra.*
- *12:30ean, ontzidien ordezkarien lore eskaintza.*
- *16:00etatik 16:45era, arraun estropu tailerra.*
- *17:00etatik 17:45era, hondartzako mikroplastikoen analisi tailerra.*
- *17:00etan, film emanaldia Mater ontzian. Ordu berean ontzien irteera.*
- *19:00etan, Juan Sebastian Elcano bisitatzeko ordutegiaren amaiera.*
- *20:00etan, Elkanoren Zeruertza Gunearen itxiera. Ordu berean, Juan Sebastian Elcanoren irteera-maniobrak.*

14 Igandea
Mendi irteera

I. San Anton Bira itsas-zeharkaldia. Gaztetape-Malkorbe
Ordua: *11:00*
Lekua: *Gaztetape hondartzatik abiatuta*
Antolatzailea: *GetaiTri Triatloi Kluba eta Zarautz Balea Igeriketa Elkartea*
Igerilariek 2.600 metroko ibilbidea gauzatuko dute.

IV. Flysch Nazioarteko Organo Jaialdia: Eguzkilore abesbatza eta organoa
Ordua: *20:00*
Lekua: *Salbatore Deunaren parrokia*
Santiago Banda organo jotzailearekin.

15 Astelehena
Euskara ikasteagatik dirulaguntzak eskatzeko epe amaiera
Lekua: *udaletxea*
2018-2019 ikasturtean euskara ikasten jardun dutenek eska dezakete dirulaguntza, baldin eta ikastaroa egin bitartean udalerrian erroldatuta egon badira eta ikastaro orduen %80 jaso badute. Honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: NANaren kopia bat; ikasle agiriaren edo langabe txartelaren kopia bat, izanez gero; matrikularen ordainagiria; ikastaroa egin izanaren eta asistentziaren egiaztagiria, antolatu duen erakundeak egina.

25 Osteguna
Cor Virelai de l'Escola coral de Quart de Poblet abesbatzaren emanaldia
Ordua: *12:30*
Lekua: *Salbatore Deunaren parrokian*
14 eta 18 urteko gaztetxoek osatzen dute abesbatza.

Kirolak

Udako kirol ikastaroak
Lekua: *izen-ematea udaletxean edo turismo bulegoan*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Modalitate ezberdinetako ikastaroetan eman daiteke izena: bela, piraguismoa, surfa, SUP, arrauna, frontenis eta irristaketa. Batzuk kiroldegian emango dira.
Informazio gehiago eskura daiteke udaletxean (943 896 024 edo kultura@getaria.org) edo turismo bulegoan (943 140 957 edo info@getariaturismo.eus).

Cristobal Balenciaga Museoa

***#Finaestampa_* erakusketa**
Uztailaren 3tik irailaren 29ra egongo da erakusketa hau irekita. Gaur egun eredu diren nazioarteko hogeita bi artistaren –gorabidean daudenak nahiz ospe handikoak– lanaren bitartez, #FINAESTAMPA_ egitasmoak erreferentziako 150 obra original biltzen ditu.

***Modaren etikarantz. Erronkak eta aurrerapausoak* ikastaro profesionala**
Uztailaren 5ean izango da Euskal Herriko Unibertsitatearen programako III. Uda Ikastaroa.

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

www.artzape.eus

egin bazkide

Txeruko postontzian // info@artzape.eus

Izen-abizenak:	
Helbidea-Herria:	
Telefonoa:	
Helbide elektronikoa:	
Kontu zenbakia:	
Banketxea:	

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com